

TTANTTANEN BIDAIA¹

(edo uraren zikloa ulertzeko beste era bat)

Mikel Lersundi

Ttanttan eta Ttantto Pasaiaiko Badian bizi diren bi tanta dira. Beti elkarrekin dabilta jostatzen... eta beti elkarren lehian, beti mokoka, beti elkarri eraso egiten... Ttanttanek balea baten gainean paseatu dela esaten badu, Ttanttok izurdeekin saltoka ibili dela kontatzen du. Beti dabilta ea nor egiten duen gauzarik zirraragarriena eta ikusgarriena. Beti abentura berrien bila... eta ezin esan ondo konpontzen direnik, ez! Beti elkarrekin, baina etsaiak dirudite!

—Ni zu baino hobea naiz igeri egiten! —dio Ttanttanek.

—Ba ni zu baino hobea naiz izurdeekin salto egiten! —dio Ttanttok.

Beti matraka bera! Ea nor den nor baino gehiago...

Gaur lasai-lasai daude Ttanttan eta Ttantto. Itsaso zabalera ez ateratzea erabaki dute eta Matxingo lurmuturraren inguruan atsedean hartzen ari dira izugarritzko beroa egiten duelako. Udako egunik sargoriena eta beroena da eta bi lagunek ez dute mugitzeko indarrik. Eguerdia da eta beroak gero eta indar handiagoz jotzen du.

—Uf ze beroa! —esan du Ttanttok.

—Bai, izugarria da! —esan du Ttanttanek.

Badirudi behingoz zerbaitetan ados daudela! Ez zaie hori askotan gertatzen!

Halako batean hegan ari direla sumatzen hasi dira...

—Ttantto, hegan egiten ari gara edo ametsetan ari naiz?

—Bai, hegan ari garela esango nuke... —esan du Ttanttok. Baina gu ez gaude hegan egiteko prestatuta...

—Itsasoa eta Pasaiaiko Badia gero eta urrunago dugu, Ttantto.

—Bai, Ttanttan. Hara, hor dabil hegan batzuetan Oiartzun ibaian ibiltzen den antxeta.

—Bai, eta hor bere lagunak martina eta ubarroia... —erantzun dio Ttanttanek.

Gero eta gorago... gero eta gorago... Ttanttan eta Ttantto hegan egiten ari dira eta Pasaia, Lezo eta Erreterria maketa balira bezala ikusten dituzte. Bi lagunentzat egoera hau berria da. Orain arte beti egon dira uretan... Halako batean hegazti erraldoi baten itxura duen tramankulua gainera datorkiela ikusi dute...

—Zer ote da hori? —esan du Ttanttok.

—Ez dakit, baina oso azkar dator eta erditik kentzen ez bagara...

—Kontuz Ttanttaaaaaan!

—Kontuz Ttanttooooo!

Azkar mugitzen saiatu dira eta ondo-ondoan pasa zaie hegazti itxurako burdina erraldoia. Bi tantentzat ezezaguna den Hondarribiko hegazkinak

1. Ipuin honen bertsioa Oarsoarrak web-orrian topa dezakezue: <http://www.oarsoarrak.net/euskara/argitalpenak/kontai-dazu-ipuin-bat/kontaidazu-ipuin-bat-2012>

sortutako zurrunbiloak lagunak sakabanatu ditu eta elkarrengandik urrundu ditu. Bi tantak elkarrengandik gero eta urrunago daude. Elkarri deika hasi dira...

—Ttanttooooooooo! Non zaudeeeeeeee!

—Ttanttaaaaaaaaaaaaaan! Non zaudeeeeeeee!

Baina dagoeneko ez dute elkar entzuten...

—Orain bakarrik nago –pentsatu du Ttanttanek. Dena den, ni bezalako asko daude hemen... baina ez ditut ezagutzen... Ttantto hemen balego...

Baina haizeak eta presioak hala eraginda, guztiak gero eta elkartuago daude eta elkarrekin hitz egiten hasi dira...

—Eu son Pinga, de Galicia.

—Yo soi Gota, d’Asturies.

—Ba ni Ttanttan naiz, Euskal Herrikoa.

Gutxika-gutxika hodei bat eratu dute tanta guztien artean... baina keinuka besterik ezin dira komunikatu. Tanta bakoitza herrialde batekoa da eta hizkuntza ezberdinak hitz egiten dituzte.

—Lagun berriekin ezin dut hitz egin Ttanttorekin egiten nuen bezala... –pentsatu du Ttanttanek.

Egoera berrira moldatzen saiatzen ari da, baina behin eta berriz datorkio galdera bera burura:

—Non ote dago Ttantto? Berriz elkar ikusiko al dugu?

Lagun guztiak haizearen mende dabilta. Gero eta hotz handiagoa egiten du, eta gero eta gehiago elkartzen ari dira hotzari aurre egiteko. Harkaitz handi batzuetara hurbiltzen ari dira... Norbaitek *Les Trois Couronnes* dela esan du, beste batek *Peñas*... Ttanttanek halako harkaitzak behetik ikusi izan ditu, itsasoaren ertzean, baina itsaso ondoan egon gabe ez du inoiz halakorik ikusi... Gero eta hotz handiagoa... gero eta hotz handiagoa... eta bat-batean...

—Aaaaaaaaaaah! Erortzen ari naiz –esan du Ttanttanek. Buf! sentzazio hau balearen edo izurdearen gainean izan ohi nuena baino indartsuagoa daaaaaa. Kilimak sumatzen ditut sabeleaaaaaaan...

Eta... plof! Ttanttan beste lagun batzuen gainera erori da. Orain itxura zuria du eta hotzez dago.

—Hemen hotz handia egiten du! Berriz ere nire antzeko lagun asko... baina ezagunik ez... Batak *neu* garela aipatzen du, besteak *nieve*, beste batek *neige*... Zer ote gara? Zuria naiz eta hotza...

—Berriz ere lagun ez inguratuta, baina lagunik gabe –pentsatu du Ttanttanek... Baina... Non ote dago Ttantto? Berriz elkar ikusiko al dugu?

Ttanttan saiatu eta saiatu ari da, eta oraingoan lortu du lagun berriak egitea. Euskaldunen bat edo beste sumatu du, baina ez du haiekin hitz egiteko beta handirik izan. Berriz ere beroa sumatzen hasi da... bero handia...

—Eta orain zer? Berriz ere beroa? Beroak banandu ninduen Ttanttorengandik... Gustatuko litzaidake berriz ere Ttantto ikustea... Beroa ez da egun hartakoa bezain handia, baina nire itxura zuria galtzen ari naiz... eta mendian behera hasi naaaaaaaaaaiz...

Bidean lagun berriak egin ditu eta berriz ere gero eta gehiago elkartzen ari dira... gero eta gehiago... eta euskaraz hitz egiten ari den norbait sumatu du:

—Kaixo! Ni Ttanttan naiz. Zu nor zara?

—Kaixo, txiki. Ni Ttantton naiz.

Ttantton helduagoa da eta ederki daki zer gertatzen ari den. Berehala azaldu dio Ttanttani Aiako Harriaren egon direla eta orain Oiartzun *ibaian* behera doazela. Batzuetan oso azkar doaz behera-aaaantz... besteetan oso poliki... berriz aaaazka-aaaar... berriz poliki... eta halako batean zabaldi handi batera iritsi dira... Ttanttanek berehala eza-gutu du leku hori:



Xabier Pérez.

—Matxingo lurmuturra! —ohiukatu du. Berriz ere itsaso ondoan gaude! Berriz ere gure betiko etxean!

—Bai, hala da —esan dio Ttanttonek.

Urrutian, Lezoko hormaren inguruan, Ttantto ikusi duela iruditu zaio... Azkar-azkar hurbildu da... eta bai! Ttantto da.

—Ttantto, aspaldiko!

—Ttanttán, zer moduz zabilta?

Bi lagunak besarkatu dira eta negarrez hasi dira.

—Uste nuen ez zintudala berriz ere ikusiko —esan du Ttanttánek, eta pena handia sumatu dut barruan.

—Niri ere antzeko zerbait gertatu zait, Ttanttán!

Elkarrengandik urrundu gabe, gertatutako guztia emozioz kontaktzen ari dira. Munduko lagunik hoberenak dira orain Ttanttán eta Ttantto.

Inguruan dago Ttanttón tanta heldua eta irribarrea ahoan duela entzuten ari da bi gazteen kontakizuna. Halako batean hurbildu da eta horrela azaldu die gertatutakoa:

1. ² Bidaia ez da izan oso gogokoa, baina ura garenez derrigorrezkoa; azalpena badauka ez da ausazkoa; izena ere badu: uraren zikloa.	2. Itsasotik atera ta lainoetara; lainotatik erori ta mendietara; ondoren ibaietan hona, horra, hara ibiliz itsasora iritsi ohi gara.	3. Orain kontu-kontari nolako bidaia; benetan ez da izan batere lasaia; etsaia zen laguna ikusteko nahia; ta ikusi ondoren dena da alai.	4. Nahiz sentitu laguna dela akastuna, gu ere hala gara, jakizu laguna. Ondoa faltaz gero, dena da iluna, ta sumatu ohi da zer den laguntasuna.
---	--	---	--

2. Orioko balearena doinuan kantatzeko.